

Dimisioa eman du alkateak

"Arrazoi pertsonalak" tarteko, kargua eta bizitza publikoa uztea erabaki du Jesus Zaballosek; Agustin Valdivia alderdikideak ordezkatzuko du / 2

TXINTXARRI

Kataluniaz solasean

Gure Esku Dagok gonbidatuta, Martxelo Otamendirekin hizketaldia izango da larunbatean / 6-7

Landaberri ikastetxeko aldapa konpontzeko jarraitu beharreko urratsak finkatu ditu udalbatzarrak / 3

Kirola, mozorroak eta festa giroa: San Silvestre lasterketaren V. edizioa jokatu da abenduaren 31n / 10

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan...
gertutasunez eta euskaraz

Hurrengo Txintxarri
Gabonetako berezia
argitaratuko dugu!

Eguberrietako programa, elkarrizketak, Olentzero eta Mari Domingi...

Eskaintza honen inguruko informazio gehiago jasotzeko gerturatu gure tailerrera.

2car

Zumaburu Kalea 18
20160 Lasarte - Oria
Tel. 943 362 463



100 € arte erregaia
DOAN eduki dezakezu
All-Season gurpilak edo
neguko Continental gurpilak
muntatuz gero.

Azaroaren 1etik 2019ko abenduaren 31a arte

16" gurpil-hagun arte

20 € 50 €

17" gurpil-hagunetik aurrera

40 € 100 €

7°C
Badator hotza
Continental konpainiak
All-season edo neguko
gurpila muntatzea
aholkatzen du.

URTINEA

Urdaiaga auzoa, 11 · USURBIL
943 917 562

LORADENDA · EZKONTZA ETA EKITALDIAK · DEKORAZIOA





Agustin Valdivia eta Lourdes Acevedo alderdikideek lagunduta eman du dimisioaren berri Zaballosek, ostegunean. TXINTXARRI

Kargua uztea erabaki du Jesus Zaballo alkateak

Ostegun goizean eman du erabakiaren berri. Arrazoi pertsonalak medio hartu du erabakia, eta Agustin Valdiviak ordezkatzeko du. Astelehen goizean egingo dute kargu-uzte ekitaldia, eta, onartuz gero, ostiralean izendatuko dute alkate berria

Txintxarri

Hilabete batzuk kargutik aldentuta igaro ostean, alkatezari uko egin diola iragarri du Jesus Zaballosek, ostegun goizean. Arrazoi pertsonalek bultzatuta hartutako erabakia izan dela jakinarazi du: "Behar adina hausnartu ostean, alkate kargua eta bizitza publikoa uzteko erabakia hartu dut; bizitzaren etapa berri bati hasiera emateko ordua iritsi da".

Harrotasunez gogoratu du udaletxean egindako ibilbide luzea, eta ostegun goizeko hitzordua baliatu du udalean pasa dituen hamahiru urteetan bidelagun izan dituen eskerrak emateko; erdara hutsean egin du agerraldia. Alderdikideak izan ditu bereziki gogoan: "Beraiek gabe, ezinezkoa litzateke nire lana". Lasarte-Oriako sozialistei ere alkate izateko aukera eman izana eskertu die Zaballosek: "Eskerrik asko nigan jarritako konfiantzagatik". Horrekin batera, udaletxeko karguetan pasa dituen

urte guztietan udal gobernu taldea osatu duten langile guztiak ere ekarri ditu gogora. Ez ditu herritarrek ahaztu, noski, eta Lasarte-Oriako elkartei bezalaxe, eskerrak eman dizkie horiei ere. Eta nola ez, senide eta lagunei ere esker hitzak helarazi dizkie agur ekitaldian. Barkamenak eskatzeko tartea ere hartu du: "Inoiz, ezertan huts egin edo hanka sartu badut, barkamena eskatzen dizuet".

PSE-EEko bi alderdikideek lagunduta eman du prentsaurrekoa Zaballosek; jarduneko alkate Lourdes Acevedo eta Hirigintza eta Lanak arloko buru den Agustin Valdivia izan ditu ondoan. Bide batez, alkate karguan azken horrek ordezkatzeko duela

**"ARRAZOI
PERTSONALENGATIK",
ALKATEZARI ETA
BIZITZA PUBLIKOARI
UKO EGIN DIE**

aurreratu du. Horrela, datorren astelehenerako deituko duten ezohiko udalbatzarraren bidez emango da Jesus Zaballosek kargu uztea, eta onartuz gero, ostiralean, abenduaren 20an, beste udalbatzar bat egingo dute, Valdiviaren kargu-hartze berria ofizial egiteko.

Hiru aldiz alkategai

2010. urtean, Ana Urchueguia alkatearen dimisioaren ostean izendatu zuten, lehen aldiz, Jesus Zaballo Lasarte-Oriako alkate. Horren ostean, 2011. urteko hauteskundeetarako aurkeztu zuten Lasarte-Oriako PSE-EEK, lehen aldiz, alkategai. Urte horretan, ordea, ez zen alkatezara iritsi. 2015. urteko hauteskundeetan, berriro ere zerrendaburu izan zen, eta orduz geroztik alkate izan da aurtengo maiatzera arte. Maiatzeko azken hauteskundeetan ere alkate izendatua izan da, eta kargu horretan aritu da uztea erabaki duen egunera arte.

Udalak 500.000 euro bideratuko ditu herritarren proiektuetarako

Lasarte-Oriako Udalak abenduaren 16tik 26ra jasoko ditu parte-hartzeko aurrekontuetarako proposamenak

Txintxarri

Duela lau urte, Lasarte-Oriako Udalak aurrekontuak egiterakoan herritarren proposamenak bildu zituen lehengoz. 2020. urtean ere herritarren proiektuek tarte bat izango dute aurrekontuetan.

Lehen fasean, abenduaren 16tik 26ra, herritarren proposamenak jasoko dira udal erregistroan edo partehartzea@lasarte-oria.eus webgunean. Proposamena memoria txiki batez lagundua joango da.

Proiektu guztiak teknikoki aztertzeke tartea izango da, ostean. 25 puntu edo gehiago lortzen

dituzten proiektuek aurrera egingo dute, beti ere, guztira 500.000 eurotik beherako kostua badute.

Kostua handiagoa bada, herri-konsulta egingo da eta parte-hartze orrien bidez eta online webgunearen bidez erabaki ahalko dute herritarrek gehien gustuko duten proposamena.

Azkenik, Udaleko balorazio eta adjudikazio batzordeak puntuazioak jakitera emango ditu eta proiektuak handienetik txikienera sailkatuko ditu. 500.000 euroen barruan sartzen diren proiektuak bakarrik gauzatzeko dira.



TXINTXARRI

Hilabeteko beste greba bat

Gipuzkoako zahar-egoitzekoko langileen ahotsa entzun da berriro ere Lasarte-Oriako erdigunean. 151 egun daramatzate greban, eta asteon iragarri dute beste hilabetez egingo dituztela lanuzteak. Atsokabarreko beharginak %70-80ko gutxieneko zerbitzu minimoak egiten ari dira. Abendu hasieran egin zuten elkarretaratzea herrian, udaletxe aurrean; eskuorriak ere banatu zituzten.



TXINTXARRI

Bilerak bai, akordiorik ez

Lasarte-Oriako Michelin fabrikako langileek "hitzarmen duin bat" sinatzeko borrokatzen jarraitzen dute. LAB sindikatuak adierazi duenez, 11 bilera egin dituzte zuzendaritzarekin, baina ez dute akordiorik lortu. Eta ez dirudi behalakoan ados jarriko direnik, LABeko kideek jakinarazi dutelako zuzendaritzak soldatak murriztu nahi dizkiela langileei, eta urteko lanaldiak areagotu. Egoera horren aurrean protesta egiten ari dira beharginak. Bi elkarretaratze egin dituzte orain arte; beste bi aurrekusi dituzte, oraingoz.

Landaberriko egoera konpontzeko urratsa

Landaberri ikastetxeko aldapako obren lizitazioa 2020ko aurrekontuetan sartzea adostu du udalbatzarrak, aho batez. HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorrera begira parte-hartze prozesu bat egitea ere onartu dute. Ordubete ingurukoa izan da abenduko ohiko saioa

Iñigo Gonzalez Sarobe

Landaberri ikastetxeko aldaparen aferra konpontzeko bidean urratsa egin du udalbatzarrak. EH Bilduk gai horri buruz mozioa aurkeztu du abenduko ohiko saioan; horrekin guztiz ados ez, eta alternatiboa eraman dute pleno aretora PSE-EEk eta EAJk. Nabardurak nabardura, alderdi guztiek erabaki dute azken hori onartzea, zerrendatzen diren konpromisoak arazo hori konpontzeko aurrerapausoak izango direlakoan. Hauek dira: sarbidearen egoera konpontzeko obra-idazketa kontratatuko du udalak, aurtengo aurrekontuetako diru-partida bat erabilita; lanen lizitazioa sartuko du datorren urteko aurrekontuetan; beste administrazio batzuen laguntza bilatuko du proiektu hori finantzatzeko; eta Donostiako Udalarekin lan egingo du, aldapako errepiderako "irtenbide egokia" bilatzeko.

Galdera eta erreguen tartean ere landu zuten gai hori, astelehen arratsaldean. Landaberriko guraso elkarteko kideen arduetako bat dira epeak. Hirigintza zinegotzi Agustin Valdiviaki erantzun zien estimatzen dutela "hiruzpalau hilabete" iraun dezakeela lanen lizitazioak. 2020ko aurrekontua onartu behar dute lehenago.



Udal korporazioa, mozioetako bat bozkatzen, astelehenean. TXINTXARRI

Aurreikuspenak betez gero, aldapa konpontzeko lanak udan hasiko lirateke, "ez lehenago". Txosten geoteknikoak hobesten du mikropiloteen egitasmoa.

HAPO plana

HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari buruz ere hitz egin zuten plenoan. Parte-hartze prozesu bat abiatzea adostu zuten, EH Bilduren mozioa aho batez onartuta. Koalizio abertzaleak beste proposamen bat ere eraman zuten plenora, etxebizitzaren eta udal ekipamenduei buruzkoa, baina ez zuten nahikoa babes jaso. Gai ordeneko aurreneko puntuan 1. mailako ofizial erremetari lanpostuari dagokion

hizkuntz eskakizuna onartu zuten, hori ere aho batez.

Jarduneko alkate Lourdes Acevedok jakinarazi zuen eskutitz bat bidali ziola Usurbilgo alkate Agurtzane Solabarrietak, gaur herri horretan egingo duten manifestazioari buruzkoa -erraustegiaren aurkakoa da-. Atxiki ala ez erabakitzeke, puntu hori bozkatzea galdegin zuten Elkarrekin Lasarte-Oria Pudek eta EH Bilduk, baina Acevedok ez zuten onartu. "Udal gobernuaren eginbeharra da hileroko kontrolatzea airearen kalitatea. Manifestazioa babestu nahi duenak, bere kasa egin dezala".

Kronika osoa www.txintxarri.eus webgunean irakur daiteke.



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

Zaintza

04:00. Antton txikia negarrez esnatzen da. Mirari amak argia piztu, besoetan hartu, titian jarri eta hortxe geratzen dira berrito sehaskan utzi arte. Goizeko seietan berdin.

07:00. Pilar amona esnatu da zaharren egoitzan. Bost aldiz deitu eta gero, azkenean, etorri da Maite. Gaur komunera joateko zortea izan du, bestela, pardela aldatzera. Gaur, atzo bezala, ez da dutxarik tokatzen. Oihal batekin garbituko du Maitek.

08:00. Gosariaren ordua. Eguneko momentu onena Pilarrentzat, kafea da dezentekoa dagoen janari bakararra.

09:00. Umeak ikastolan eta haurreskolan uzteko garaia Mirararentzat. Lanera doa. 14:00etan jasoko du txikia, egun erdiko lana egin ondoren. Zaharrena, jangelan geratuko da.

12:30. Bazkalordua Pilarrentzat. Pura eta arraina. Beste behin plateraren hondoa ikusi gabe geratu da...

16:30. Aneren bila ikastolara joateko unea. Irrikitan dago Mirari, ez baitu egun osoan ikusterik izan. Besarkada batekin agurtu du.

18:00. Bihar semea etorriko zaio bisitan Pilarri. Egun osoan ez du Maiterekin lasai hitz egiterik izan. Beti bezala oso lanpetuta ibili da. Gaurkoan, konpainiarik gabe geratu da...

19:00. Antton eta Ane baineran daude Mirarik afaria prestatzen duen bitartean. Gaur ez dago jolasteko astirik, afaldu eta ohera.

21:00. Antton, Ane eta Pilar ohean daude. Mirari eta Maite jota daude. Bihar beste egun bat izango da. Edo hala ez balitz? Maite grebarako prest dago, berarengatik eta Pilarrengatik. Eta Mirarik ere egingo balu? Eta biek bezala beste milioika emakumek?

Zaintzarik eta zaintzailerik gabe mundua geratuko litzateke. Zaintza denon ardura da.

Aintzane Usandizaga herritarra joango da Irakurle Txokora

Gogotsu ekin diote ikasturte berriari Irakurle Txokoko kideek. Urtea bukatzeko, Aintzane Usandizaga idazle herritarrekin elkartuko dira, abenduaren 17an, asteartez. 18:30ean hasiko da saioa; Uxue Alberdi idazleak dinamizatuko du, ohi bezala. Usandizagaren *Kabitu ezina* ipuin bilduma jorratuko dute.

Klasiko batekin ekingo diote 2020ari: Robert L. Stevenson *Jekyll doktorearen eta Hyde jaunaren kasu bitxia*-rekin. Otsailaren 27an, Mari Luz Estebanen *Andre zaharraren manifestua* landuko dute. Ia hilabete beranduago, Amets Arzallus gonbidatuko dute, *Miñan* lanari buruz hitz egiteko.

Beñat Sarasola izan da aurtengo aurreneko idazle gonbidatua: *Deklaratzekorik ez eleberria* idatzi du donostiarrak.

Umeentzako Gabonetako Parkera goz!

BEC-era!

LH3-LH4-LH5-LH6koentzat

Goizeko 9:30etik 18:30ak arte

Bazkaria eta merienda eraman behar da.

Ttakupeneko bazkideak 17 euro ez bazkide 20 euro

Urtarrilaren 3an

Izena emateko: aisia@ttakun.eus 943.371448 edo Ttakunen bulegoan

NOAOA BIDAIAK

ESLOVENIA & ISTRIA

NORUEGAKO FIORDOAK (itsas bidaia)

TALDE BIDAIAK Denboraldi aurrerapena

T.: 943 373 613
info@noaoa.eus



Parte-hartzaileak eta Aterpeko zein udaleko ordezkariak, sari-banaketa ekitaldia bukatu eta berehala. TXINTXARRI

Pintxo irabazleak, Arkupe eta Araetarenak

Aurten parte hartu duten zazpi taberna eta jatetxeek prestatutakoa dastatuta, sariak emateko ordua iritsi da: Arkupek egindako hostopila gustatu zaie gehien lasarteoriatarrei; Sergio Humada sukaldariak, berriz, Araetaren elaborazioari eman dio Profesional Saria

Txintxarri

Hirugihar, patata eta odolki hostopila izan da Pintxo Ibilbidea egin duten lasarteoriatarrei gehien gustatu zaien pintxoak. Arkupe tabernak eraman du sari hori. Sergio Humada sukaldariak, berriz, ebatzi du Araeta jatetxeak merezi duela Profesional Saria. Izokin marinatua izan da euren elaborazioaren ardatza; lunpo izeneko arrainaren arrabekin eta oliba beltz deshidratatuarekin batera aurkeztu dute, *won ton* saskitxo batean -Txinan oso ohikoa den pasta mota bat-.

Pozarren jaso dituzte Arkupe eta Araetako kideek bi sari horiek, udaletxean. Aterpea Merkatarri eta Ostalarrien elkarteak eta udaleko kideak joan dira, eta baita aurtengo Pintxo Ibilbidean parte hartu duten gainontzeko taberna eta jatetxeak ere. Gonbidatu dute Ivan Herrero herritarra ere; berak irabazi du 200 euroko zozketa, pintxoak dastatu ostean iritzia emateagatik.

Pintxo ugari eros daitezke 200 euroekin. Ez, ordea, aurtengo ibilbidean saldu diren bezainbeste: 1.505, Aterpeko lehendakari Ramon Ormazabalek jakinarazi duenez. "Ekimenak herrian oso harrera ona daukara erakusten

du horrek". Eskerrak eman dizkie aurtengo edizioan parte hartu duten guztiei. Berrikuntzetako bat izan da herriko elkarte gastronomikoetako kideek ere iritzia eman dutela, Semblante Andaluz elkartearen egindako dastatze ekitaldian.

Humadak pintxoaren kalitatea goraiatu du, eta barkamena eskatu saria parte-hartzaile guztiei eman ezin izateagatik. "Herrira iritsi berria naiz; espero dut ez didazuela etxea erreko", bota du, txantxetan. Gutxigatik irabazi du Arkupek Sari Herrikoa: 4.06 puntu bildu ditu; Lasarte tabernak, aldiz, 4.03. Hiru alor baloratu dituzte herritarrek eta elkarteek: pintxoaren zaporea, orijinaltasuna eta aurkezpena.

Gabonetan, geratu gabe

Pintxo Ibilbidearekin hasi eta urtarrilaren 4ra arte, Aterpea elkarteak Lasarte-Orian erostea sustatuko du; kaleak alaitzeko eta koloretzatzeko ekimenak ere egingo ditu.

Merkatarri eta ostalarrien elkarteak kide diren 40 saltokitan eguberriko otarreak zozkatuko dituzte. Abenduaren 27ra arte egindako erosketak egin dituzten herritarren izenak sartuko dituzte

kutxan. Denda bakoitzak sorta bana zozkatuko du.

Kaleak apaintzeko ekintzak ere egingo dituzte. Aurten aurreneko, erakusleihen lehiaketa antolatu du Aterpeak, udalaren laguntzaz. Hemezortzi komertzioak parte hartuko dute. Bi sari banatuko dituzte antolatzaileek: herrikoa eta profesionala. Lasarteoriatarrek abenduaren 14ra arte eman ahalko dute iritzia, larunbata. Bestalde, dekoratzaile talde bat arduratuko da deliberatzeaz zein dendaren erakusleihen den profesionalena. Sari-banaketa ekitaldia datorren asteko ostegunean egingo dute, abenduak 19, pleno aretoan.

Ekimen gehiago Eguberrietan: txu-txu trenan ibiliko da herrian zehar urtarrilaren 4an, larunbata. Orduetgia, honakoa: 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Aterpeko kideak abestera ere animatu dira asteen. EiTren Elkartasun Maratoiarekin bat egite aldera, *Lau Teilatu* abesti ezagunaren bertsiot bat grabatu zuten Buenetxea tabernan, Xumela abesbatzarekin eta Lasarte-Oriako hainbat herritarrekin batera, astelehenean. Antolatzaileen asmoa da bideo klip bat egitea, handik eta hemendik jasotzen ari diren bideoak batuta.

San Tomas azoka, Eguberriek hasiera emateko era ederra

Txistorra, talo eta gaztain usainek beteko dute Okendo plaza abenduaren 21ean, larunbatez, arratsaldean

Txintxarri

Txerria izango da aurten ere Santo Tomas azokako protagonista. Haur eta helduen gozamenerako ikusgai izango da Okendo plazan, abenduaren 21ean, larunbatez, 17:00etatik aurrera.

Jatekoa ere egongo da. Taloa, txistorra, sagardoa eta gaztainak dastatzeko aukera izango da Ttakun kultur elkartearen karpan. Etxeko txikiek eurek egindako taloak jan ahalko dituzte talo tailerrari esker.

Herriko elkarteek ere izango dituzte postuak. Denetariko jaki,

edari eta produktuak eskainiko dizkiete herritarrei.

Horrez gain, azoka girotzeko hainbat ekimen izango dira plazan. Institutuko gazteek bingo saioak antolatu dituzte. Xumela abesbatzak Okendon hasita kalejira egingo du erdiguneko kaleetan zehar. Bertsolarien kantua ere entzun ahalko da oholtzan.

Gorputza astintzeko Ttirriki-Ttarrakako kideen erronoi doinuak izango dira eta ostean, plaza dantzak. Azkenik, Oaintxe in deul txarangak kaleak alaituko ditu, iluntzean.



EH Bilduk eta Elkarrekin Lasarte-Oria Pudek babestu dute hitzordua. TXINTXARRI

Usurbilgo manifestaziora joateko deia, lasarteoriatarrei

EH Bildu eta Elkarrekin Lasarte-Oria Pude alderdiek bat egin dute ostiral arratsaldeko deialdiarekin

Txintxarri

SOS Usurbil, erraustegia gelditu lelopean, manifestazioa deitu du Usurbilgo Udalak, eta Lasarte-Oriako bi alderdik atxikipena eman diote mobilizazioari.

Gaur arratsaldeko 19:00etan abiatuko da manifestazioa, Usurbilgo udaletxe aurreko Joxe Martin Sagardia plazatik. Horrela, hitzorduarekin bat egin dute Lasarte-Oriako EH Bilduk eta Elkarrekin Lasarte-Oria Pude alderdiek, eta mobilizazioan parte hartzera deitu dituzte lasarteoriatarrak.

Azaroaren 28az geroztik ari da zaborra erretzen, probaldi fasean, eta Usurbilgo Udala "oso kezkatuta" dago. Horregatik, atzo egindako prentsurrekoan, "laguntza eta babesa" eskatu diete Gipuzkoako herritarrei, eta baita ingurumenaren zaintzarekiko ardura bere egiten duten gipuzkoar guztiei ere.

Gutunak Gipuzkoako alkateei

Usurbilgo Udalak jakinarazi du, Gipuzkoako alkate guztiei gutun bana igorri dietela, errauste plantaren gaia euren herrietako udalbatzarretan lantzeko eskatuz.

MULTIÓPTICAS

URTE BERRIRAKO IKUS-ASMO OSASUNGARRIAK

Gure begiak babesten jarraitzeko unea da; ez gara argitasunetik eta erradiazio ultramoreetik soilik babestu behar, udan bezala; argi urdinaren gehiegizko eragina ere kontuan izan behar da.

Gure egunerokotasunean oso barneratuak ditugun ohiturak ditugu; hala nola, ordenagailuarekin lan egitea, mugikorra kontsultatzea, barruko led argiek, telebista edo autoaren nabigatzailea begiratzea,... Hauek guztiek, etengabe eta modu metagarrian eragiten dute gure begietan, eta zenbait sintoma eragiten dituzte: lehortasuna, narritadura, buruko mina eta epe luzera baita erretinan kalteak ere.

Garrantzitsua da gehiegizko esposizio digitalaren aurrean begiak babesteko kontzientzia hartzea.

Gogora dezagun garrantzitsua dela haurren begiak bereziki babestea, euren ikus-egiturak ez baitaude helduak, eta argi kaltegarrien eraginak ondorio larriak izan ditzakete etorkizunean.

Gure seme-alabak mundu digital batean jaio dira; gailu digitalen presentzia hain da ohikoa, ezen oso txikitatik jasaten baitute gehiegizko esposizioa.

PANTAILA DIGITALEKIKO GEHIEGIZKO ESPOSIZIOAK IKUSMEN-ARAZOAK SOR DITZAKE, BABES EGOKIAREKIN SAIHETS DITZAKEGUNAK



JOKAERA OSASUNGARRIAK

Multiopicasek jokaera osasungarriak gomendatzen ditu:

- Argi egokia erabili, eta pantailen distira eta kontrastea doitu.
- Gorputz-jarrera eta gailuarekiko distantzia egokia izatea.
- 30 minutuan behin atseden hartu, pantaila bati begira ari bazara.
- Begiak maizago kliskatzea.

Bestalde, ingurune digitalak igorritako argi urdin kaltegarriak ehuneko handian blokeatzeko eta ikusmen-estresa murrizteko baliabide eraginkorrak jartzen ditu guztion eskura **Multiopicasek**:

- > **Argi urdinaren aurkako iragazkia** eta **UV izpietatik babesteko** betaurreko graduatuak.
- > Ikusmen-nekea murrizten duten **ukipen-lenteak**, korneara oxigeno gehiago igarotzen uzten duen materialaz eginak.
- > **Begi-lehortasunari aurre egiteko likido-aukera zabala**, begia ondo hidratatua egon dadin.

Multiopicaseko lantaldeak zure ohiturak eta beharrak aztertuko ditu, eta zure kasurako irtenbiderik eraginkorrena gomendatuko dizute.



ETXEKO TXIKIEN KONTSUMOA



3 ORDU

haurrek egunero pantailaren aurrean pasatzen dituzten orduen batezbestekoa



4 ORDU

3 umetik batek pantaila bati begira igaro duen denbora



EGUNEAN 4 ORDU

12 eta 17 urte bitarteko nerabeek egunero, batez beste, pantailari begira dauden denborada, kontuan hartuta ikastetxe gutxik dituztela pantailak ikasgelan



3TIK 1EK

3 urte izan baino lehen hasten dira pantailak dituzten gailuak erabiltzen



5 URTE

haurren erdiak pantailadun gailu bat osoki erabiltzen du



9 URTE

lehen mugikorra daukate



ARAZOA DUGU?

ITURRIA: ASP



10ETIK 7K

smartphonea begiratzen du oheratu aurretik



esnatu bezain laster pantailaren bat begiratzen duela aitortu du



lagun arteko afari batean mugikorra begiratu izana aitortu du



KONTSUMOA

167

EGUN PANTAILA BATEN AURREAN (URTEAN)



11 ORDU EGUNEAN

pantaila baten aurrean



3TIK 2K

komunera eramaten dute mugikorra

"Adierazpenetatik kanpo, independentzia zenbaitek nahi duten jakin behar da"

MARTXELO OTAMENDI 'BERRIA' EGUNKARIKO ZUZENDARIA

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago herri dinamikak gonbidatuta, hitzaldia eskainiko du bihar. Kataluniako eta Euskal Herriko erabakitze eskubidearen bidez hitz egingo du



Gure Esku Dago dinamikak deituta, larunbatean arituko da Martxelo Otamendi, kultur etxean, 10:30ean. MARTXELO OTAMENDI

Maddi Zaldua

Erabakitze eskubidearen bidean, lan nekaezina egiten ari da Gure Esku Dago. Herri plataforma martxan jarri zutenetik egin duten borondatezko lanak ez du etenik, eta datorren urterako ere, erronka berriei aurre egiteko prest dira. Euskal Herriaren etorkizuna, erreferendum baten bidez erabakitze asmoa jarri dute mahai gainean, eta hori egikaritzeko lanetan ari dira orain. Hori horrela, zenbait egitasmo jarriko dituzte martxan urte berria hastearekin batera. Euskal Herriko bideak, ordea, Kataluniakoa du bidelagun. Hain zuzen ere, urriaren leko erreferendumaz, Kataluniako prozesuaz eta Euskal Herriko bidez hitz egiteko, solasaldia antolatu du Lasarte-Oriako GEDek, eta Martxelo Otamendi (Tolosa, 1957) gonbidatu du hizlari gisa. Bihar izango da solasaldia, larunbatez, 10:30ean, Mercero aretoan. Hitzordu hori baliatuz, elkarrizketa egin dio TXINTXARRI-k. **Lan txukuna egiten ari da Gure Esku Dago erabakitze eskubidearen bidean. Urte berrirako ere badute erronka handia: erreferenduma.**

Konplikatuak ikusten dit. Gu herri txiki bat gara, eta independentziaren gaia ez dago agenda politikoan eta hori sartu beharra dago. Dena den, oso interesantea da GEDk martxan jarriko duen egitasmoa; gauzak ez dira jakiten nola funtzionatuko duten martxan jarri arte. Orain, bidelagunak topatu behar dira. Denborarekin, segun eta zein lan egiten den, gerta liteke ondo funtzionatzea eta ondo ateratzea. Gauzak saiaturak lortzen dira, saiatu gabe nekez lor daiteke ezer.

Momentura arte, estatutu politiko berriaren lanketan, ez da erabakitze eskubidearen inguruko formulazio bateraturik lortu. Badu zentzurik

lanketa horretan aritzea, erabakitze eskubideari tarterik egin gabe?

Segun eta alderdi bakoitzak zein iritzi duen bai. Independentzia zaleak, erabakitze eskubidearen aldekoak ere ez dakit gehiengoak diren. Alderdi sozialista ez dago horretan, ezta PP ere. Herri honetan badago adierazpeneko independentzia zaletasun bat, independentzia zale dena adierazpenetan bakarrik.

Katalunian erabakitze eskubidea jarri zuten martxan eta gero, nahiko azkar pasa ziren independentziara. Hasierako irizpidea erabakitze eskubidea zen, eta %80ak bozkatu zuen horren alde, baita alderdi sozialistak ere.

Herri honetan, independentziari dagokionez zerrenda bat egin behar dela uste dut; adierazpenetatik harago, independentzia, benetan, zenbatek nahi duten jakiteko. Gero, emaitza horiek ikusita, aztertu beharko da zer egiteko prest dauden, zenbat diren, zenbateko lana egin nahi duten, eta abar. Independentzia nahi ez duen independentismo bat sortzen ari da.

Nola bideratu daiteke desadostasun hau guztia? Zer eskatu behar zaie alderdiei korapiloa askatzen has daitezen?

Akordioa ezinezkoa da Euskal Herrian. Alderdi Sozialistak ez du erabakitze eskubidea onartuko, eta, aldi berean, EH Bilduk ez dio independentzia lortzeari uko egingo. Horregatik, argitasun irizpide batzuk izatea eskatu behar zaie. Adostasunik ez dagoenez, arauen bidez konpondu daiteke desadostasuna, hau da, bozka emanaz. Horrela, agian, askatu daiteke korapiloa. Aurrez zehaztutako baldintza batzuk bete beharko ditu bozketak: jende kopuru jakin batek parte hartu behar du; aldeko botoek ehuneko zehatz bat gainditu behar dute, e.a. Horrek guztiak aurrez zehaztua behar du izan. Horrela egiten da herrialde askotan, horretarako daude erreferendumak. Herri batzuetan badago galdeketak egiteko kultura; Suitzan etengabe ari dira galdeketak eta erreferendumak egiten. Hemen gauza bera egin daiteke.

EAEko hauteskunde kanpainaurerako aitzakia gida erabiltzen ari dira erabakitze eskubidearen gaia. Interesak egon daitezke gaia korapilatzen jarraitzeko.

Alderdi guztiek daukate oportunitate puntu bat. Batzuek

"KATALUNIAN, GIZARTEAREN ZATI HANDI BATEK OSO BARNERATUTA DU ESTATU BATEN BEHARRA"

bere irudi propioa indartzeko, eta beste batzuek, aldiz, parekoaren irudia desgastatzeko edo ahultzeko. Seguraski, Gasteizko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetan, erabakitze eskubidea eta autogobernua alderdi abertzaleen artean elkar kritikatzen puntu izango da.

Zein momentutan aurkitzen da Euskal Herria erreferendum bat aurrera eramateko?

GEDk egingo duen erreferenduma orientatiboa izango da, jendeak muskulua egiteko ariketa bat. Katalunian erreferendumen ariketa egin dute, eta horren helburua jendeak ariketa simulakroa egitea izan da, egun batean etor liteken erreferendum baterako. GEDk planteatzen duena, nahiz eta orientatiboa izan, oso interesgarria izango da; gauzak egin behar dira izan dezaketen erantzun maila jakiteko.

Balioko du bakoitza zertan ari den ikuste, zeintzuk bultzatzen duten, zeintzuk deitzen dioten bere jendeari botoa ematera joan daitezten. Dena den, legala izango den erreferendum batetik urruti gaude, bai gu eta bai Katalunia ere.

Alderatu daitezke Kataluniako eta Euskal Herriko bideak?

Katalunian, gizartearen talde handi batek oso barneratuta du independentziaren eta estatu baten beharra; %47 aren bueltan dabil kopuru hori. Konbentzitzen,

ikasten, autodeterminazioaren gimnasia daramatzate azken hamar urteak. Askotan joan dira gimnasio horretan praktikatzen, eta dagoeneko gihar independentista egin dute; fisikoki eta mentalki oso prestatuta daude, indar handiarekin. Alde nagusia hori da; Katalanek duela hamar urte hasi zuten prozesu hori, jende askok parte hartu du, eta ariketa asko egin dituzte autodeterminazioaren erreferendum horretan. Horren ostean iritsi zen urriaren leko erreferenduma.

GEDk herri galdeketein egin du ariketa polit bat, jende askorentzat oso egitasmo interesgarria izan zena. Ordura arte elkarrekin lan egin gabeko jendea bildu zen, elkarrekin egin dute lan, sortu dira lanerako gogoak, sinergiak eta konfiantzak eta horren haritik, erreferenduma planteatzen ari dira orain.

Horrez gain, bi herrien arteko harreman ona ere kontuan hartu behar da. Badago historikoa den elkartasun harreman bat bien artean, ikustea besterik ez dago, Kataluniaren prozesuaren aldeko manifestazioak Euskal Herrian ere egin dira, eta Katalunian manifestazio handiak izan direnean, bertara joan diren talderik handienak, Katalanak kenduta, euskaldunak izan dira. Hori bi herrien arteko urte askotako harreman onaren ondorioa da, eta hori oso garrantzitsua da.

Konstituzioa aldatzeak aldatuko luke Kataluniaren egoera?

Ez dut uste konstituzioak aldaketarik ekarriko duenik, Espainian ez dute Konstituzioa aldatuko erabakitze eskubidea barne hartuz. Bi heren behar dira, eta Espainian ez dago sentsore politiko bat hori lortzeko. Hori



Erabakitze eskubidea erreferendum bidez gauzatu nahi du Gure Esku Dago dinamika. TXINTXARRI

kontuan hartuta, iruditzen zait, kataluniarrek daukaten %47a igotzea dela bide bakarra, oinarria zabaltzea. Ikusi dugu, portzentaje horrekin zein urriaren leko errepresioarekin, kartzela zigorrekin eta erbestearekin ez dela nahikoa izan Europak esku hartzeko; ez die kasurik egin, ez behintzat beraiek espero zuten moduan. Ehuneko hori handitzeak behartuko du Europa, orain arte eduki ez duen jarrera bat edukitzera; Espainiari presioa sartzera.

Kataluniako buruzagien epaiketa eta gero hauteskundeak deituko zitzuzela uste zen. Ez da deialdirik egon, ordea. Kataluniako buruzagien atxiloteten ostean, lehendakariak eta lehendakariordeak esan zuten gobernu horrek sententzia iritsi bitartean iraungo zuela. Sententzia, ordea, iritsi da, eta gobernuak hor jarraitzen du. Zergaitik hori? Ba PDeCATek [Partido Democratico Europeo Catalan] kalkulatu duen duelako, orain hauteskundeak deituz gero, Esquerra Republicana de Catalunya irabaziko litzukeela,

eta, hortaz, alderdi horrek hartuko lukeela gobernuaren gidaritzza, PDeCATek galduz. Hori da nahi ez duena azken horrek, eta horregatik ez dituzte hauteskundeak deitzen. Gainera, Esquerrak, gobernuan dagoen arren, ez du fase horretan sartu nahi. Izan ere, duela hilabete batzuk Katalunian oso giro nahasia zegoen. Manifestazio asko, istilu asko, eta gobernu berri bat osatuko balitz, hau da, Esquerrak hartuko balu lehendakari, PDeCATek barne sailaren kargu egitea eskatuko lioke, eta hemendik aurrerako polizia kolpeen ardura euren gain geratuko litzateke. Horregatik, Kataluniako egoera nola geratuko den argitu arte, ez zaie komeni hauteskundeak aurreratzea.

Torraren sententziaren berri ere eman behar dute; gaitasunik gabe uzten badute, beste presidente bat jarri beharko dute.

Urriaren 1eko mugimenduan, aktibazio sozial handia piztu da Katalunian. Tsunami Demokratikoak gainera, Kataluniako mugak gainditu ditu eta

Euskal Herrira ere iritsi da. Orain, gainera, euskal errepublikaren aldeko Ehun herri mugimendua ere sortu da. Aktibatua ikusten al duzu euskal gizartea?

Sektore abertzalean bai. Zati handi batek gauzak egiteko asmo eta gogoia badu, eta Kataluniako prozesua aktibo dagoela ere aprobetxatu nahi da bi prozesuak bateratzeko.

Adibide bat jarriko dut: tenisean oso ona bazara, biren aurka jokatu dezakezu, baina pilota bakarrarekin. Oso zaila da bi pilotekin jokatzeko. Hemen gertatzen ari da Kataluniako eta Euskal Herriko prozesuen bateratze bat denboran, eta horrela arazo handiagoa sortzen zaio Madrili. Gero gainera, Europa ere gehixeago behartzen duzu Espainia estutzera. Arazo nazionalak dira, eta Europak eskatu diezaiolke Espainiari arazo horiei ahalik eta azkarren aurre hartzea. Euskal Herrian bi prozesuak sinkronizatzea nahiko lukeen jendea badago, eta eskatzen ari dira beste urrats sendoago batzuk.



IBON FERNANDEZ IRADI

CENTRE PÉNITENTIAIRE
CHEMIN DE LA PLAINE

B.P.166

65307 LANNEMEZAN CEDEX

Giro alaiean uxatu dituzte aurreiritziak

Jalguneren XIII. jaialdia

Sineskeriak eta ustezko mugak alde batera utzita, 'Zuekin Ez Dok Amairu' jaialdia ospatu du Jalgune elkarteak aurten; musika eta umore onez bete du Manuel Lekuona kultur etxea.

Gortinak zabaldu eta Lehoi Erregea, Merida printzesa, kutsu andaluzeko Buzz Lightyear, edota Sebastian karramarroa ondoan zuen Ariel sirenatxoak agertu ziren globoekin apaindutako oholtza gainean. Disneyko pertsonaia horiek eta beste batzuek dantza egin zuten Up filmeko etxe hegalaria irudi aurrean. Arratsaldeko lehen dantza besterik ez zen izan, motorrak berotzen hasteko. Aurkezpen bideo batean, hamahiru arteko kontaketa egin zuten hainbat lasarteoriatar ezagunek, besteak beste, Iraia Iparragirre, Asier Odriozola, Ane eta Axier Arteaga pilotaria edota Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak. Ondoren, "Eta gu?" "Eta zu?" "Eta ni?" galdetu zuten beste asko ere agertu ziren pantailan. "Zuekin, 'ez dok amairu' jaiaren lehora heldu arte. Babesa ez zieten bideoan bakarrik erakutsi, oholtza gainean herriko zenbait talde izan zituzten lagun XIII. ospakizunean: Sorgin Jaiak, Gazte Kluba, Zabaleta Auzolan auzo elkarte eta Semblante Andaluz.

Aretoa txiki gelditu zen eta batzuek alboko pasilloetako baten zoruan eserita ikusi zuten jaiaren gehiena. Zuzenean ikusteko aukerarik izan ez zutenentzat, ordea, bideo emanaldia eskaini zuten abenduaren 3an; aniztasun funtzionalaren egunean TXINTXARRI-k grabatu zuen emanaldia ikusteaz gain, Beatriz Egizabalen burutazioekin gozatu zuten bertaratutako herritarrek.



Semblante Andaluz elkarteko kideek, urtero gisa, Jalguneren jaialdian parte hartu dute. TXINTXARRI



Askotariko dantza eta kantuekin gozarazi dituzte emanaldia ikustera gerturatu diren ikus-entzuleak. TXINTXARRI



Disneyko doinu ezagunek eman diote hasiera jaialdiaren XIII. edizioari. Lehoi erregea eta



'Txozneroak' abestia dantzatu dute Sorgin Jaietako lagunekin batera. TXINTXARRI



Merida printzesa irudikatu dituzte. TXINTXARRI



Mozorroak soinean jarrita, ederki moldatu dira oholtza gainean Jalguneko lagunak. TXINTXARRI



Jaialdi koloretsua oholtzaratu dute Jalguneko kideek; primeran pasa dute emanaldi osoan zehar. TXINTXARRI



Gazteklubekoekin baloreetan oinarritutako kantak dantzatu dituzte. TXINTXARRI



Abenduaren 3ko bideo emanaldia clown ikuskizunak girotu zuen. TXINTXARRI



MAITANE REBE

Esker hitzak besterik ez

Bost urte nituenean galdetu nion amari. Zer egin behar dut horretan lan egiteko? Transmittzen zuten zoriontasun horrek harrapatu ninduen. Urtez urte galtzen ez dudana hitzordua da. Gaurkoan, hitz gutxitan, Jalguneri tarte bat eskaintzera nator.

Gizartearen arazoetako bat pertsona batek edozer egiteko mugak dituela pentsatzea da, baina, ez al gara gu hori ikusi eta onartzeko prest ez gaudenak? Jalgune indarra da, ausardia da. Gizarteak jartzen dituen oztopoak eta zailtasunak hausten dituzte.

Jalgune inklusioa eta aniztasuna da. Jendea pertsonalki eta sozialki garatzeko gaitasuna dute, burututako ahalegin guztiari ikusgarritasuna emanez. Beraiei esker ikasi dut bizitzan dagoen desgaitasun bakarra jarrera txarra izatea dela.

Jalgune poza eta dibertsioa da. Mila esker egiten duzuen guztia irribarre batekin egiteagatik, herriari irribarre ateratzeagatik, eta irri egitean bizitza errazagoa dela ikusarazteagatik.

Jalgune tolerantzia eta elkartasuna da. Beti erakutsi didate liburu bat ezin dela bere azalengatik epaitu. Pertsonekin gauza bera gertatzen da. Aurreiritziak alde batera utziz, pertsonak gertutik, barrutik ezagutu behar dira. Nik aukera baino, zorrea izan dut, hein batean, pertsona bikainez osaturiko talde hau ezagutzeko.

Jalgune ulermena eta errespetua da. Elkar bizitzeko elkar ulertzea eta errespetatzea oso garrantzitsua da. Batez ere, norbera inor baino hobea dela ez pentsatzea. Jalgune familia handia zela antzeman nuen bere garaian, eta gaur egun familia handi bat izaten jarraitzen dute, maitasunez, pazientziarekin, pausokapausoka aurrera eginez.

#Gaigara lelopean, Jalgunek ia 30 urte doa lanean. Eta bai, gai zarete, erakutsi duzue gai zaretela. Zuek gabe Lasarte-Oria ez zen berdina izango. Ezta gu ere. Mila esker hainbeste erakusteagatik. Segi aurrera, eta ez galdu inoiz duzuen irribarre.



Gogotsu ari dira antolatzen bosgarren edizioa boluntario taldeko kideak. Asteon aurkeztu dute kirol ekitaldia. TXINTXARRI

Kirola, mozorroak eta giro ona, urtea bukatzeko

San Silvestre lasterketaren V. edizioa jokatu da abenduaren 31n, 16:00etan. Proba antolatzeko boluntarioak behar dituztela azpimarratu dute antolatzaleek. 1 dortsala Iraia Iparragirre futbolariari emango diote. Berrikuntza bat: kanpaikadak egingo dituzte udaletxean

Iñigo Gonzalez Sarobe

Abenduaren 31 berezia da: urteko azken eguna, familia eta lagunekin elkartzeko aitzakia ederra, urte berrirako erronkak zehazteko unea...eta Lasarte-Oriako San Silvestrean parte hartzekoa. Duela bost urtetik daroma herriko

boluntario talde batek kirol ekitaldi hori prestatzen; ordu eta izerdi-tanta asko eta gero, lortu dute herriko egutegiko zita berezietako bat izatea, udalaren eta herriko hainbat komertzioen laguntzarekin. Ari dira prestatzen aurtengo hitzordua, buru-belarri.

Berrikuntza batzuk iragarri dituzte: kanpaikadak egingo dituzte udaletxean, eguerdiko hamabietan; Porrotx pailazo bihurria ere bertan izango da. 1 zenbakidun dortsala Iraia Iparragirre Realeko futbolariari emango diote. "Edizioa eman

ahalko genioke, baina aitortza aurten egitea erabaki dugu, Erreginaren Kopa irabazteagatik, besteak beste", adierazi du Iosu Galdosek, antolatzale taldeko kideetako batek. TXINTXARRI-k izan zuen iaz ohore hori.

Antolatzale taldea hasi da lanean, baina boluntario gehiago behar dituzte. "Urtero lortu ditugu dena ongi antolatzeko behar adina pertsona, baina aurten kopuruz gaizki gabiltza", ohartarazi du Galdosek. San Silvestre lasterketaren helbide elektronikora idatz dezakete interesa dutenek: info@sansilvestrelasarteoria.com.

Ibilbidea eta berrikuntzak

Sei kilometro egin beharko dituzte korrikalariek eta patinatzaileek; ipar martxalariek, berriz, lau. Okendo plazan hasi eta bukatuko da lasterketa; artean, Sasoa eta Zumaburu auzoetatik igaroko da, besteak beste. 16:00etan hasiko da. Ordubete lehenago, beroketa musikatua plazan bertan. Horraino, aldaketarik ez.

Abenduaren 31 goizetik berotuko dituzte motorrak herriarrek. Urtero legez, pintxo-potea egingo dute Okendon. Herriko elkarte, eragile zein ekimen batek antolatzen du urtero; irabaziak bere eguneroko jardunerako erabiltzen ditu gero, antolatzaleek hala erabakitak. Aukera hori *Izan Iñurri* egitasmoari emango diote aurten. Minbiziaren bizipenetatik abiatuta, gaitz hori pairatzen

dutenei laguntzea da euren helburu nagusia.

Goiz horretan beste ekintza bat egingo dute. Berria, gainera: kanpaikadak. Baina ez gauerdian. "Udalak eman digu ideia: 12:00etan kanpaikadak egitea, udaletxean bertan", esan du Galdosek. Uste du umeentzako "ekintza aproposa" izan daitekeela. Porrotx pailazoak girotuko du ekitaldia.

Izen-ematea, zabalik

Tramite hori Internet bidez egitea aholkatzen dute antolatzaleek. Webgune honetan apunta daitezke herritarrek, bost euroren truke: www.kirolprobak.com. Antonio Mercero gunean postua jarriko du antolatzaleek abenduaren 29an, 30ean eta 31n, dortsalak banatu eta izen emate gehiago jasotzeko. "Prezioa igo egingo dugu egun horietan: 29an eta 30ean, zazpi eurora; 31n, aldiz, hamarera. Lasterketaren egunean goizez eongo gara soilik". Urtero azpimarratzen dute gauza bera: hamasei urtetik gorakoek jokatu ahaliko dute lasterketa; gazteagoek, ez. "Urteari giro ederran agur esatea da helburua, mozorrotuta eta kirola eginez".

Udalak 2.000 euro emango dizkie antolatzaleei, eta *Tratu On Bat* egitasmoko 700 erosketa poltsa, parte-hartzaileei banatzeko. "Hasieratik lagundu dugu kirol ekitaldi hori; egutegiko hitzordu garrantzitsu bihurtu da herrian", nabarmendu du Nuria Fernandez Sozioekonomia zinegotziak.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Zarautz KE - Ostadar SKT Igandea. 17:15. Asti, Zarautzen.
ERREGIONALEN GORENGOA
Ostadar SKT - Urnieta KE Larunbata. 18:00. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN 1. MAILA
Hernani CD - Ostadar SKT Larunbata. 18:30. Zubipe, Hernanin.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Real Union Club SAD Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.
KADETEEN 1. MAILA
Ostadar SKT - Beasain SD Larunbata. 16:30. Michelin kirol gunean.
INFANTILEN 1. MAILA
Internacional CD - Texas Lasartearra Larunbata. 14:45. Matigoxotegi, Donostian.
Ostadar SKT A - Ostadar SKT B Larunbata. 10:00. Michelin.

INFANTILEN OHOREZKO MAILA
Tolosa CF - Ostadar SKT Larunbata. 14:00. Usabal, Tolosan.
INFANTIL TXIKIA, SAILKATZE FASEA
Ostadar SKT - Santo Tomas Lizeoa Larunbata. 13:00. Michelin.
ARETO FUTBOLA
SENIORRAK, 1. MAILA
Oartzun KE - Eguzki Aldaz H.K. Ostirala. 20:15. Elorsoro kir., Oartzunen.
SENIOR 2. MAILA
Eguzki ISU Leioak - Miren Taberna Larunbata. 13:00. Maialen Chourraut kir.
JUBENILAK
Eguzki Balerdi Harategia - Lauburu KE Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kir.
Herrikide CMO - Eguzki 2KN Igandea. 11:00. Eskolapioak, Tolosan.
HERRIKO TXAPELKETA
Viña del Mar - Avenida FT Larunbata. 09:15. Michelin kirol gunean.
Bar Goiko - Garoa Taberna Larunbata. 10:15. Michelin kirol gunean.
Insausti - Patricio Cocktail Bar Larunbata. 11:15. Michelin kirol gunean.

Asador Irigoyen - Trumoi Taberna Larunbata. 12:15. Michelin kirol gunean.
HITZALDIA
Gipuzkoako areto-futbol entrenatzaileen jardunaldia, federazioak antolatuta. CD Segosala klubeko harrobi zuzendari Diego Gacimartinek eskainiko du formazio saioa. Larunbata. 10:00etatik 14:00etara. Maialen Chourraut kiroldegian.
SASKIBALOA
SENIOR PROBINTZIALA, 1. MAILA
Arri BKL - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Antzizar kiroldegia, Beasainen.
SENIOR PROBINTZIALA, 3. MAILA
Inter De Mitente - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Benta Berri kiroldegia, Donostian.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT - Bergara Soraluze KE Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kir.
JUNIOR PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Ordizia KE Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.

KADETE ERRENDIMENDUA
Hondarbasket - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Hondartza, Hondarribian.
KADETE PARTAIDETZA
Bergara Soraluze KE - Ostadar SKT Larunbata. 10:45. Compañía de Maria ikastetxea, Bergaran.
BOLEIBOLA
JUBENIL-SENIOR MAILA
Ostadar SKT - Goierri Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kir.
PILOTA
PROFESIONALA, PROMOZIOA, BINAKAKOA
Elordi eta Etxebarria - Arteaga II eta Urretabizkaia II Igandea. 17:00. Astelena, Eibarren (hirugarren partida).
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Universitario Bilbao Rugby - Babyauto Zarautz Larunbata. 16:00. El Fango, Bilbon.

EUSKAL LIGA
Funes Rugby - Babyauto Zarautz Larunbata. 16:00. Juan Bertol, Funesen.
18 URTEZ AZPIKOAK
Zarautz Beltzak - Gaztedi RT Larunbata. 15:00. Michelin kirol gunean.
16 URTEZ AZPIKOAK
Mutriku/Zarautz/Beltzak - Gaztedi RT Gorriak Larunbata. 14:15. San Miguel, Mutriken.
IGERIKETA
NEGUKO LIGA
Buruntzaldea IKTKo infantilek, juniorrek eta absolutuek Neguko Ligako 4. jardunaldia jokatu dute. Larunbata. 16:00. Udal Kiroldegia, Hernanin.
BESTELAKOAK
KIROLAREN V. FESTA
Urteko kirolari onenen sariak banatu ditu Lasarte-Oriako Udalak. Bosgarren edizioa da aurtengoa. Larunbata. 12:00. Udaletxeko udalbatza aretoa.

EGUBERRIETAKO KANPAINA

Erosi Lasarte-Orian

eta lortu Eguberrietako
sorta aparta!

Multiópticas LASARTE	Peluquería Caballeros ANA	URRUZOLA Mertzeria
Mercería OLMI	Zapatería ITURBE	Calzados LEDER
Peluquería MARBELL	Ferretería SUKOA	BIDEO LAGUNAK
ORMAZABAL Loradenda	Peluquería MARIAN OLAIZOLA	ARKUPE Taberna
MABEL Moda	NOGUÉS Moda	IMAGINE Jantzi Denda
SANTANA Informática	ALBA Moda	Admón. Fincas SILVIA LUIS ARBIZU
Admón. de Fincas MILLA	Ventanas ISU Leihoak	BERASATEGI Kafeak
Ventanas ALCAR	Peluquería MAY	DEKO 75 Textil Hogar
OIHANA Estetika	ADATS Orraztegia	BIZKER Impresión Digital
Peluquería BEA	KAIZEN Mueble y Decoración	HIRUALDETA Taberna
Electricidad ARREGUI	MAYA Lentzeria	Gimnasio SAITO
ORBELA Ekodenda	OLA Enmarcación	Bazar ABREU
Óptica LIZARRI	Café-Bar BUENETXEA	Mercería MAUXA
		Bar YOLANDA

Abenduaren 27ra arte



ZATOZ LASARTE-ORIARA! DOHAIN ATERAKO ZAIZU

**10€
GUTXIENENKO
EROSKETA**



Nahia Zudairek, brontzea Castelloko trofeoan

Zudaire 2019ko Gipuzkoako Kirol sarietarako hautagai izan da. Denboraldian zehar, Gipuzkoako Igeriketa Teknikazio gunean lan egingo du Zudairek. Nora Imaz eta Aintzane Sarobe igerilariek ere teknifikazio saioetan parte hartuko dute

Txintxarri

Aurreko asteetan gaixo egon arren, Nahia Zudairek kirolari bikaina dela erakutsi zuen XVI. Castalia Castellon trofeoan. Bere marketatik gertu ibili zen eta brontzezko domina eskuratu zuen 50 metro libreko proban.

Zudairek etorkizuneko paralinpiarren AXA taldeko egonaldia izan zuen zubian. Abenduaren 4an eta 5ean lan saioak izan zituzten igerilariek. Abenduaren 6tik 9ra, berriz, XVI. Castalia Castellón trofeoan lehiatu ziren. Zudairek lau probatan parte hartu zuen eta lau etako finaletan izan zen borrokan. "Txapelketan txukun aritu da", adierazi du Borja Apeztegia prestatzaileak.

Lehen finala 100 m. libre probakoa izan zen larunbatean, abenduaren 7an. Zudairek 1.13,06 egin zuen eta bosgarren sailkatu zen. Hiru finalei aurre egin behar izan ziren, igandean, abenduaren 8an. 50 m. libre proban podiumera igo zen, 34,67ko denborarekin hirugarren sailkatu zen eta.

Dominatik gertu egon zen 100 m. tximeleta proban laugarren sailkatuz, eta 100 m. bizkar proban bederatzigarren sailkatu zen. Nahiz eta azken proba horretan bizkorrenen artean egon, Zudairek Buruntzaldea IKTKo S8 mailako marka ondu zuen.

Teknikazioa

Zudairek ez du atsedetik izango, Gipuzkoako Igeriketa Teknikazio gunean saioak egiteko deialdia jaso baitu. Ez da Donostiako Paco Yoldi kiroldegian egingo diren saioetan Buruntzaldea IKTKo igerilari bakarra izango; Aintzane Sarobe eta Nora Imazek ere parte hartuko dute.

Imaz teknifikazio gunean izan da dagoeneko. Abenduaren 7an izan zuen infantil mailako lehen saioa, Paco Yoldi kiroldegian.



Nahia Zudaire Castalia Castellon trofeoan lortutako dominarekin. BURUNTZALDEA IKT

Lehorrean zein uretan lan egin zuten gazteek eta beste bost saio egingo dituzte. Sarobek eta Zudairek gaur eta bihar izango dituzte lehen entrenamenduak. Denboraldi osoan zehar, ostirala eta larunbatetan, junior eta absolutu mailako igerilarietara batera egingo dute lan.

Kirol sariak

Baina ez dira guztiak txapelketa edo entrenamenduak. Beste mota bateko deialdia ere jaso du Zudairek urte bukaera honetan: Gipuzkoako kirol sarietarako hautagaitza, hain justu.

Gipuzkoarren sarian lehiatu da Zudaire. Berarekin batera, kirol disziplina anitzetako kirolariak izan ziren hautatuak. Azaroaren 25era arte egon zen irekita bozka emateko epea. Tolosa CF Gimnasia Erritmikoa taldeak eskuratu du garaikur hori azkenean, jasotako bozkek zenbatu eta gero.

Abenduaren 4an, Tabakalera izan zen Kirol Galan banatu zen saria. Gipuzkoa Kirola Saria, berriz, Real Sociedad taldeko emakume eta izotz hockeyko Txuri Urdin gizonezkoen taldeek eskuratu zuten.

Prestakuntzarekin aurrera

Zudaireren mailara iristearrekin amets egiten dute Buruntzaldea IKTKo igerilari gazteek, eta horretarako lan eta lan dabilta. Azaroaren 30ean, Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan, alebin mailako 3. jardunaldian haien balioa erakusteko aukera izan zuten.

Taldeko hamabost gaztetxok 200 m. libre eta 100 m. tximeleta probetan parte hartu zuten eta lehen postuetan sailkatu ziren, euren markak onduz. 4x100 m. estilo libreko erreleboa ere izan zuten eta mutilek hirugarren postuan amaitu zuten lehia.

Alebinen lau jardunaldi gehiago egingo dituzte eta Gabonetan oraindik zehaztu gabeko txapelketaren batean lehiatuko direla aurreratu du Buruntzaldea IKTKo arduradun Apeztegiak.

Ez da hori Buruntzaldea IKTKo igerilarien urteko azken lehiaketa izango. Asteburu honetan, esate baterako, infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Neguko Ligako laugarren jardunaldian eta Irun Hiria Sarian lehiatuko dira; masterrek, berriz, Gipuzkoako Txapelketa jokatuko dute.



Infantil mailako lau selekzio izan dira lehiatzen. Argazkian, Asturias-Galizia neurketa. TXINTXARRI

Asturiasek irabazi du selekzioen arteko lauko lagunartekoa

Eguberri hauetan, Ostadar saskibaloia ataleko kideak ez dira aspertuko; ekintza ugari egingo dituzte

Txintxarri

Saskibaloiak ez du zubia egin eta lagunarteko txapelketa jokatuko dute Asturiaseko, Euskadiko, Galiziako eta Gaztela eta Leongo infantil neskek. Espainiako txapelketa prestatze aldera antolatu da lauko lagunartekoa.

Larunbatean, goiz eta arratsalde, aritu ziren Maialen Chourraut kiroldegian. Igande goizean, berriz, azken gurutzaketaren txanda izan da. Asturias eta Galizia nor baino nor aritu dira, lehenik, eta Euskadi eta Gaztela eta Leon, ondoren. Euskadiko selekzioak ez du zorte gehiegi izan asteburuan, hiru norgehiagoketako bi galdu eta bakarra irabazi baitu, Galiziaren aurka.

Harmailak bete ez badira ere, jende ugari bertaratu da partidak ikustera. Kaleko lasaitasunetik urruti, txalo eta garrasiak nagusi izan dira bai pistan bai harmailetan.

Lasarte-Oriatik Asturiasera. Bertako Pola de Siero herrian lehiatu zen Eñaut Buiza herritarra kadete mailako Euskadiko selekzioarekin. Galiziako eta Asturiaseko selekzioen aurka aritu zen, baita CD Navia junior taldearen aurka ere.

Selekzioen arteko txapelketez gain, Eguberri hauetan saskibaloiarekin lotutako beste ekimen batzuk izango dira. Lehena, igande honetan. Ostadar SKTKo eskolako kideak Delco GBC-Liberbank Oviedo partidako atsedendietan jokatuko dute.

3x3 txapelketa ere antolatu du kirol elkarteak abenduaren 28an, larunbata. Parte hartu nahi duten taldeek Ostadar SKTren bulegoan eman behar dute izena 18:00etatik 20:00etara. Inskripzio epea abenduaren 26an itxiko da. Urtarrilaren 2an, osteguna, Baskonia eta Barcelonaren arteko neurketa ikusteko bidaia antolatu dute Ostadarreko kideek.

Malen Urkiri, Bocciako Espainiako selekzioan

Ostadar Inklusioa ataleko Malen Urkiri kirolaria Bocciako Espainiako selekzioko egonaldian dago lanean. Bartzelonako San Cugateko CAREan egingo da abenduaren 15era arte. Iker Urkiri prestatzailea ere bertan da.

Hamahiru urteko kirolariak lehengo denboraldian lortutako emaitzei esker lortu du deialdian egotea: Gipuzkoako txapelkun



OSTADAR INKLUSIOA

da; eta, taldeka, Espainiako txapelkun.

Michelingo Kirol gunean, berriz, larunbatean, 16:30etik aurrera, II. Eslalom txapelketa antolatu du Ostadar Inklusioak.

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ESKAITZA
Pertsona bat behar da bi lagunentzat janaria prestatu eta garbiketa egiteko. Astelehenetik ostiralera, 06:00etatik 09:00etara. Harremanetarako zenbakia, 943 373 706.

ESKARIA
Pertsona helduak zainduko nituzte orduka, edota interno gisa. Harremanetarako zenbakia, 649 712 158
Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 606 661 048.

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. Interna edo orduka. Harremanetarako zenbakia, 648 243 984.

BESTELAKOAK
Baserritar jantzia beharko nuke, 2 neurrikoa, neska txiki batentzako. Harremanetarako zenbakia, 688 667 982.


NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Iñerni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak
Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 13

LASARTE-ORIA Tailerra

Tradiziozko jantzetan aditua den Ane Albisuk euskal jantzi tradizionalak era egokian jantzeko saioa egingo du. Jalgi Kafe antzokia, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Ardo-dastatzea

Ardo-dastatzea antolatuta du Ttakun kultur elkarteak. Mikel Garaizabal enologoak eskainiko du saioa. Bost ardo dastatuko dira, bost pintxoz lagunduta. Tikitak Ttakun kultur elkartea eskuratu daitezke: 12 euro, bazkideentzat eta 15 euro bazkide ez direnentzat. Ttakunenea, 19:30ean.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Jose Luis Elexpe *Pelex-en Ideiak izartzen* erakusketa ikusgai dago. Erakusketa abenduaren 16ra arte egongo da ikusgai. Siglo 20, egun osoa.

LARUNBATA 14

LASARTE-ORIA Solasaldia

Martxelo Otamendi *Berria*-ko zuzendaria *Lasarte-Orian* berriketan saioan izango da. Maider Galardi kazetariaren galderei erantzunez, Kataluniaren egoerari buruz ariko da. Lasarte-Oriako Gure Esku Dago herri ekimenak antolatuta. Mercero gunea, 10:30ean.

LASARTE-ORIA Musika

LOUH gazte taldeak emanaldia eskainiko du. Jalgi Kafe antzokia, 20:00etan.

DONOSTIA Bertsolaritza

Ane Labaka Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean lehiatuko da. Sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean. Aurrez agortzen ez badira, txarteldegian ere eskuratu ahal izango dira, 16:00etatik aurrera.

Donostia Arena, 17:00etan.

IGANDEA 15

LASARTE-ORIA Azoka

Gabonen aurreko azoka antolatuta dute. Bigarren eskuko arropa, artisautza, bitxigintza, moda eta osagarriak, artea eta argazkilaritza... Produktu anitz egongo dira salgai. Siglo 20, 17:00etatik aurrera.



LASARTE-ORIA Ikuskizuna. *Julietas, Romeo Circo* ikuskizuna eskainiko du Markeliñe antzerki taldeak. Romeo eta Julieta bi kapela dira, eta "aurkezleak" airera botako ditu. Pertsonaia nagusiak kapelak dira, ez antzezleak. Kapela bat berdea da, bestea gorria. Romeo eta Julieta. Aldaketaren eta dramaren kontzeptuak abiapuntu hartuta, ikuskizun honetan kapelak Shakespearearen istorio unibertuala kontatuz joango dira, noren buruan pausatzen diren arabera. Sarrera, 5,50 euro. Manuel Lekuona kultur etxea, larunbata, 20:00etan.

ASTELEHENA 16

LASARTE-ORIA Tailerra

Mari Domingi eta Olenzeroren etorrera prestatzeko tailer berezia egingo da: otarrak. Izena ematea 943 371 448 edo 695 785 392 zenbakietan, aisia@ttakun.eus eta Ttakunen bulegoan egin daiteke. Osasun zentroko 2. solairuan, 17:30etatik 19:00ak bitarte.

ASTEARTEA 17

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Pello Añorgak aurtengo ipuin kontalaria saioei amaiera emango die. Lau eta sei urte arteko haurrei zuzendutako saioa da. Manuel Lekuona, haur liburutegia, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Tailerra

Taloak egiten ikasteko tailerra egingo da Amaraun Klubeko gaztetxoekin. Heldu batek lagunduta joan behar dute haurrek. Bi saio egingo dira, bata 17:00etatik 18:30era eta bestea 18:30etik 20:00ak arte. Izena ematea 943 371 448 edo 695 785 392 zenbakietan, aisia@ttakun.eus eta Ttakunen bulegoan egin daiteke. Ttakunenea, 17:00etan eta 18:30ean.

LASARTE-ORIA Literatura

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoko kideek Aintzane Usandizaga herritararen

Kabitu ezina ipuin bilduma aztertuko dute. Idazlearekin solasean aritzeko tartea izango dute.

Manuel Lekuona, 18:30ean.

ASTEAZKENA 18

LASARTE-ORIA Tailerra

Mari Domingi eta Olenzeroren etorrera prestatzeko tailer berezia egingo da: karrozaren apaingarriak. Haurrek plastikozko botila bat eraman behar dute. Izena ematea 943 371 448 edo 695 785 392 zenbakietan, aisia@ttakun.eus eta Ttakunen bulegoan egin daiteke. Osasun zentroko 2. solairuan, 17:30etatik 19:00ak bitarte.

LASARTE-ORIA Musika

Udal Musika eskolako ikasle eta iraskasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute. Manuel Lekuona, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Normalizazio prozesua eta lidergo politikoa hitzaldia antolatu du Elkarbizi elkarteak. Historia Garaikidean doktore eta euskal gatazka eta normalkuntza politikoan aztertzaile espezializatu Imanol Lizarralde izango da hizlaria. Plazak mugatuak dira eta ganboiturri@gmail.com helbidean izena eman behar da, abenduaren 16a baino lehen. Mirentxu, 19:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

La trinchera infinita
Ostirala: 22:00.

La familia Addams
Igandea: 17:00.

La trinchera infinita
Igandea: 19:30.

USURBIL

URBIL

Jumanji: Siguiente nivel

Ostirala: 16:30, 18:00, 19:15, 20:45, 22:00, 23:30, 00:35.
Larunbata: 16:30, 18:00, 19:15, 20:45, 22:00, 23:30, 00:35.
Igandea: 12:00, 12:30 (3D), 16:30, 18:00, 19:15, 20:45, 22:00.

Frozen II

Ostirala: 15:45, 16:30, 18:00, 18:30, 19:00.
Larunbata: 15:45, 16:30, 18:00, 18:30, 19:00.
Igandea: 12:30, 15:45, 16:30, 18:00, 18:30, 19:00.

Si yo fuera rico

Ostirala: 15:50, 17:55, 20:15, 22:25, 01:00.
Larunbata: 15:50, 17:55, 20:15, 22:25, 01:00.
Igandea: 15:45, 18:00, 20:15, 22:50.

Los ángeles de Charlie

Ostirala: 15:45, 22:30, 01:00.
Larunbata: 15:45, 22:30, 01:00.
Igandea: 15:45, 22:30.

Navidad sangrienta

Ostirala: 15:45, 18:15, 22:55, 01:00.
Larunbata: 15:45, 18:15, 22:55, 01:00.
Igandea: 12:30, 15:45, 18:15, 22:55.

Puñales por la espalda

Ostirala: 15:50, 21:30.
Larunbata: 15:50, 21:30, 00:20.
Igandea: 15:50, 21:30.

Legado en los huesos

Ostirala: 17:55, 20:25.
Larunbata: 17:55, 20:25.
Igandea: 17:55, 20:25.

Le Mans '66

Ostirala: 21:20, 00:25.

Larunbata: 21:20, 00:25.
Igandea: 21:20.

Midway

Ostirala: 22:15, 00:35.
Larunbata: 22:15, 00:35.
Igandea: 22:15.

La familia Addams

Ostirala: 16:00.
Larunbata: 16:00.
Igandea: 12:30, 16:00.

Abominable

Igandea: 12:30.

Maléfica: Maestra del mal

Igandea: 12:00.

Bayala: una aventura mágica

Igandea: 12:00.

Friends: 25 años I

Ostirala: 20:30.

25 años II

Larunbata: 20:30.

25 años III

Igandea: 20:30.



LABURPENA

La trinchera infinita

Zuzendariak: Aitor Arregi, Jon Garaño, Jose Mari Goenaga. **Gidoilariak:** Luiso Berdejo, Jose Mari Goenaga. **Musika:** Pascal Gaigne. **Argazkia:** Javier Agirre Erauso. **Herr:** Espainia/Frantzia (2019). **Antzezleak:** Antonio de la Torre, Belén Cuesta, Vicente Vergara, José Manuel Poga, Emilio Palacios, José María del Castillo, Carlos Bernardino. **Iraupena:** 147 minutu.

Etxean ezkutatuta bizi beharra

La trinchera infinita filma ikusteko bi aukera izango dira asteburu honetan Lasarte-Orian. Okendo Zinema taldeko zineforumean zuzendarietako batekin solastu ahalgo dira herritarrak.

Donostiako Zinemaldian ikusi ahal izan zen Aitor Arregi, Jon Garaño eta Jose Mari Goenagaren azken filma. Gidoi onenaren saria eta zuzendari onenarena ez ezik, Irizar eta Feroz sariak eta Fipresci saria ere jaso zituen Donostian. Sari hauetaz gain, urtarrialren 25an banatuko diren Goya sarietarako 15 izendapen lortu ditu, tartean filmik onenari emango diotena.

1936ko gerrako istorio bat kontatzen du filmak eta egiazko hainbat kasutan oinarritu dira gidoia idazteko.

Higiniok (Antonio de la Torre) eta Rosak (Belen Cuesta) hilabete bat baino gutxiago daramatzate ezkontuta. Gerra Zibila piztu eta, hainbat salaketak direla medio, Higinioren bizitza arrisku larrian dago. Emaztearen laguntzaz, Higiniok etxean zulo bat egin eta bertan ezkutatzea erabakiko du. Elkarrenganako maitasunak eta errepresaliak jasotzeko beldurrak 30 urtetik gora iraungo duen ibixaldi batera kondentatuko dute bikotea.



Euskara sustatzeko lanean ari diren eragileek eta herritarrek parte hartu dute prentsaurrekoan. TXINTXARRI

X. Euskararen Maratoia eta Euskaraldia, 2020an

Bero Bero dator 2020. urtea. Euskararen Maratoiaren hamargarren edizioa ospatuko da urriaren 17an eta 18an. Lantaldea ari da dagoeneko lanean, eta datozen hilabeteetan emango dituzte datu gehiago. Euskaraldiak azaroaren 20tik abenduaren 4ra iraungo du

Txintxarri

Euskara hauspotzen jarraitzeko urte indartsua izango da 2020a, Lasarte-Orian. Herritarrentzat horren kuttuna den Euskararen Maratoia atzera kontuan sartzeaz da: urriaren 17an eta 18an ospatuko da hamargarrena, eta, honezkero, Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako Udala eta maratoiko lantaldea hasi dira lanean. Besteak beste, zortzikoteko kideak nortzuk izango diren zehazten hasi dira. Euskararen eguna, abenduaren 3a, baliatu dute datorren urteko egitasmoen berri emateko, Antonio Mercero aretoan.

Maratoiarekin batera, Euskaraldiaren bigarren edizioak

ere hartuko du Lasarte-Oria, datorren urtean. Hamabost eguneko egitasmoa izango da; azaroaren 20an hasi eta abenduaren 4an amaituko da.

Zenbait berrikuntza izango ditu bigarren edizioak; *ahobizi* eta *belarriprest*-ez gain, ariguneak sortuko dira, hala erabakitzen duten entitateetan. Euskaraz "lasai" aritzeko gunek izango dira.

lazko Euskaraldiko datuak

Bi egitasmoak aurkeztearekin batera, hainbat datu ere eskaini dituzte. Besteak beste, Euskaraldiak pasa den urtean, Soziolinguistika Klusterrak emandako datuen arabera, Lasarte-Oriako ekimenean parte

hartutako 3.000 herritarren artean, %62a ahobizi izan zen, %38a belarriprest, %61a emakumezkoak izan ziren, %38a gizonezkoak eta %1a ez binarioa.

Euskararen katalogo berria

Adinaren arabera, bi ataletan banatu dute euskararen aurtengo katalogoa: 0 eta 12 urte bitarteko gazteentzat lehena; eta 12 eta 16 urte bitartekoentzat bigarrena. 21. edizioa da aurtengoa; 100.000 ale banatuko dituzte etxez etxe. Udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordokik adierazi du aldaketek "nabarmen" erraztuko dutela produktuak bilatzea, eta "nortasun propioa" emango diotela adin-tarte bakoitzari.



Ane Labaka (eskuinetik hasita hirugarrena), gainontzeko finalistekin. TXINTXARRI

Labaka, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerako prest

Lierni Rekondo herritarrek bigarren saria eskuratu du Pello Mari Otaño bertsopaper lehiaketan, Zizurkilen

Txintxarri

Ane Labaka bertsolari lasarteoriatarra Donostia Arenan izango da kantuan larunbatean, 17:00etatik aurrera. Labakak Agin Laburu, Beñat Gaztelumendi, Jon Maia, Alaia Martin, Oihana Iguaran, Beñat Lizaso eta Nerea Elustondo izango ditu lagun txapelaren lehian.

Finaleko lehen zatian binakako lana zein bakarkakoa egin beharko dute bertsolariek. Puntu gehien lortzen duten bi bertsolariek buruz burukoan neurtuko dituzte indarrak. Saio guztiko puntuazioa batu eta txapelduna erabakiko da. Xabier Gaztelumendik jantziko dio txapela 2019ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako irabazleari.

Sarrerak eta jarraipena

Finalerako sarrerak dira www.bertsosarrerak.eus webgunean eskuratu daitezke. Sarrera guztiak

agortu ez badira, 15:00etan irekiko da Donostia Arenako txarteldegia.

Donostiara hurbildu ezin direnek, telebista edo internet bidez ikusi ahaliko dute finala. ETB4 kateak zuzenean eskainiko du eta sarean www.eitb.eus eta www.bertsoak.eus orrialdeetan jarraitu ahaliko dira Ane Labaka eta bere aurkarrien gorabeherak.

Rekondok, saria

Kantuan ez ezik, Lasarte-Oriako bertsolariak bertso idatzitan ere ongi moldatzen dira. Horren erakusle da Lierni Rekondo gazteak irabazi duen saria.

Zizurkilgo VI. Pello Mari Otaño Bertsopaper Lehiaketako helduen kategoriara aurkeztu zuen gazte lasarteoriatarrek *Kausalitateak* lana; epaimahaiak ebatzi du bigarren onena izan dela. 250 euroko saria poltsikoratu du herritarrek. Mikel Artola alegiarrak irabazi du lehen saria.

2mó/
graduatu, erreflexuen/
aurkako lenteekin **99€**

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multipopticasgipuzkoa.com   